

Zeren falta sumatzen duzue egun hauetan?

Hamaika egun daramatzat etxean, mugitu gabe.

Amara bitan ogia eta edozein gauza erostera joaten da. Ni etxean geldi.

Gauza asko faltan sumatzen dut: lan egitea, lagunekin egotea... Baina gehien faltan sumatzen dudana ibiltzea da.

Etxean ez daukat lorategirik, ezta ibiltzeko lekurik ere.

Pasi lloan zortzi urrats egiten ditut aldi batera eta zortzi urrats beste aldera. Horrela eguna bukatzen denean, gutxi gorabehera hiru mila urrats egiten ditut.

(Mugikorrean aplikazio baten ikusten dut) Normalean, lanean, hamar mila urrats izan ohi dira. Edo egun normal batean, lana egin gabe, eta mendira ibiltzera joan gabe zortzi mila izaten dira.

Gorputz osan nabaritzen ari da; goizero buruko mina hasten da; hanketan ere mina izaten dut, baina sorbaldan ere.

Denak lodituko gara, baina adineko jendeak... askoz gehiago nabarituko du ibili gabe egotea. Azkenean, gazteok hau dena bukatzen denean kalera bueltatuko gara, eta berriz sasoiari jarriko gara. Haien denbora gehiago behar izango dute bere gorputza suspertzeko.

Espero dut hau lehenbailehen bukatzea, eta kalera berriz normala egitera ateratzea.